

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**325/2018 Foru Agindua, azaroaren 19koa, hasierako onespena ematen diona Zuiako udalerrian, Murgia eta Zarateko herrien artean, A-3610 errepidearen paralelo, zuntz optiko motako banda zabala jartzeko obren interes publikoa adierazteko espedienteari**

#### AURREKARIAK

Telefónica SAU sozietateak obra baimena eskatu dio Zuiako Udalari Murgia eta Zarateko herrien artean zuntz optiko motako banda zabalaren instalazioa kanalizatzeko. 1.179 metroko luzera duen hodi hirukoitza sartuko da zangan, ARQ A57 eta P-209 artean, eta D motako kutxatila bat eraikiko da, Banda Zabalaren Belaunaldi Berriko Sareak zabaltzeko programaren barruan.

Kanalizazioa Z8 motako -Nekazaritza eta Abeltzaintza Zona eta Landazabalak- lurzoru urbanizaezinetik joan beharko litzateke, A-3610 errepidearen paralelo eta arekatik oso hurbil, tarte batean izan ezik, 50 metro inguru urruntzen baita.

Zuiako Udalak espedientea bidali du, eta eskatu du izapidetu dadila proiektuaren interes publikoaren adierazpena, ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, lurzoru eta hirigintzarenak, bere 28.5. a) artikuluan xedatutakoa betetzeko; eta eskaerarekin batera udaleko arkitektoak eginiko txostena aurkeztu du.

#### OINARRIAK

Ingurumen eta Hirigintza Sail honek eskumena du aztertzen ari den espedientea ebazteko, Diputatu Nagusiaren uztailaren 3ko 133/2015 Foru Dekretuaren arabera, eta Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartzen duen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuak 18.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bat etorri, lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan ezarritakoarekin, lurzoru urbanizaezinean ezingo dira gauzatu aplikatzekoa den arloko legeriak edo lurralde antolamenduak interes publikoko deklaraturako zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak berariaz ezartzeko jardunak baizik, zeinak, betiere, dagokion foru diputatuak ebazpen bidez deklaratu behar baititu interes publikoko, hogeit egunetz jendaurrean edukitzeko izapidea bete ondoren.

Aztertutako kasuan, hasierako onespena izapide bat baino ez da, hots, prozedura bultzatzen duen eta edukia argitaratzea ahalbidetzen duen izapidea baino ez, eta ez du xedatzen, inondik inora, behin betiko onespenerako hartu beharreko erabakirik.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz,

#### XEDATZEN DUT

Lehena. Hasierako onespena ematea Telefónica SAUk sustatutako, eta Zuiako Udalak izapidetutako espedienteari, interes publikotzat jotzen duena Murgia eta Zarateko herrien artean, A-3610 errepidearen paralelo, zuntz optiko motako banda zabala jartzeko obrak gauzatzea.

Bigarrena. Espedientea jendaurrean jartzea, hogeit egunetz, foru agindu hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan, nahi duen orok egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango ditu. Espedientea Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuan dago interesdunen eskura, azter dezaten.

Gasteiz, 2018ko azaroaren 19a

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua*  
**JOSEAN GALERA CARRILLO**